

Dragoi pribatuaren lehen hegaldia

SpaceX konpainiak transbordadoreen ordezkotzat espazioratu zuen maiatzaren 22an

Lehen aldiz joan da espazio-ontzi pribatu bat ISS espazio-estaziora. SpaceX enpresako *Dragon* zamaontzia da; maiatzaren 22an jaurti zuten, eta bidaia probakotzat hartu dute. NASAk lagundutako proiektua da,

Dragon eta beste ontzi pribatu batzuekin ordezkatu nahi dituztelako dagoeneko erretiratu dituzten transbordadoreak.

Hegaldian, *Falcon 9* suziriak garraiatu zuen *Dragon* kapsula atmosferatik

irten arte. Handik aurrera, kapsulak bere kabuz egin zuen hegan, ISSraino iritsi arte. ISSko beso robotiko batek hartu zuen, eta estazioaren laborategiarekin akoplatzen lagundu zion. ISSko astronautek atera zuten zama, eta, gero, *Dragon* Lurrera itzuli zen. Planifikatutakoaren arabera, apirilaren 30ean jaurti behar zuten *Dragon* kapsula Cañaveral lurmuturretik, baina, batetik, azken uneko test batzuk egin ahal izateko eta, bestetik, *Falcon 9* suziriaren motor baten arazoak zirela, jaurtiketa bi aldiz atzeratu behar izan zuten.

Probako hegaldia tripulatu gabekoa izan zen, eta ISSra eraman zituen 1.181 kilo zamatatik, 660 kilo Lurrera bueltan ekarri zituen. SpaceXko Elon Musk diseinatzailearen arabera, hiru urteko epean lortuko dute misio tripulatu bidaltzea ISSra. Maiatzeko hegaldia zen horretarako egin beharreko lehen urratsa. ●



ARG.: SPACEX



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



BIZKAIA BIZIA